

AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Eusko Jaurlaritzak, azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, indarkeria sexistaren adierazpen guztien aurrean gaitzespenik sendoena adierazi nahi du, baita emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko duen konpromisoa.

Indarkeria matxistaren ondorioz hildako emakumeak gogoratzeaz gain, gure babes eta elkartasun osoa adierazten diegu indarkeria biktima diren eta indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei, eta haien eskura jartzen ditugu Jaurlaritzak dituen baliabide eta zerbitzu guztiak. Ildo horretan, konpromisoa hartzen dugu gainerako erakundeekin elkarlanean jarraitzeko, Emakume biktimei arreta hobea emateko erakunde arteko hitzarmenaren bidez.

Era berean, aitortza egin nahi diegu egunero indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duten profesionali.

Euskal gizarteak argi eta garbi adierazi du berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duen konpromisoa; gaur egun, atzo baino sentsibilizatuago dago gure gizartea berdintasunarekin, eta gero eta neurri gehiago eskatzen ditu.

Testuinguru honetan, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aldaketa onartuko du. Aldaketa horrek berdintasun-politikak eta indarkeria matxistaren aurkako politikak indartuko ditu. Izan ere, Legearen aldaketak berresten duen bezala, ezinbestekoa da berdintasunaren alde lan egiten jarraitzea emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko.

Herritar guztien inplikazioa ere beharrezkoa da, eta horretarako, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako itun sozial eta herritarra bultzatzen ari gara.

Inplikazio horren erakusgarri izango dira, halaber, azaroaren 25ean bertan herritarrek eta erakundeek indarkeria gaitzesteko egingo dituzten adierazpen publikoak. Horietan parte hartzera animatzen dugu, betiere indarrean dauden osasun-neurriak errespetatuz.

Konpromiso kolektiboa behar dugu. Gobernu honek lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du, eta orainaldiari begira egiten du, baina, batez ere, eraikitzen lagundu nahi duen etorkizunari begira: etorkizun hobea nahi dugu belaunaldi berrientzat, indarkeriarik gabekoa eta berdintasunean oinarritutakoa.